



Finantzetako zuzendariaren ebazpena, 2010eko martxoaren 22koa. Horren bitartez, onetsi egin dira eskubide ekonomikoen likidazio-balioaren epeak eta datak, Euskal Autonomia Erkidegoko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeentzat prestazioak eta erreskateak ordaindu behar diren kasuetarako.

Gizarte-aurreikuspenaren alorreko ikuskapen eta kontrolaren bitartez jasotako esperientziak dio interpretazio-irizpideak ezarri behar direla Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeetan (banakako modalitatean edo bazkidedun modalitatean) prestazioak eta erreskateak kobratzeko gehienezko epeari buruz, bai eta bazkidearen eskubide ekonomikoen likidazio-balioa kalkulatzeko kontuan hartu beharreko datari buruz ere.

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek hainbat modutan arautzen dituzte, euren estatutu eta araudietan, prestazio eta erreskateen ordainketak egiteko epeak eta, ondorioz, desberdintasunak eragiten zaizkie bazkide arruntei, dauden erakundearen arabera.

Hala eta guztiz ere, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeen legearen araudia onartzen duen otsailaren 20ko 87/1984 Dekretuak ezarritakoaren arabera, bost astegunekoa izango da eskubide ekonomikoak mugitzeko gehienezko epea, dokumentazio guztia jatorrizko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen aurkezten denetik aurrera zenbatzen hasita.

Finantza Zuzendaritzaren iritziz, arrazoizkoa eta bidezkoa da epe berberak aplikatzea, modu analogikoan, eskubide ekonomikoen prestazio eta erreskateak kobratzeko eta, horrenbestez, irizpide horiek homogeneizatzea, segurtasun handiagoa ematearren bazkide guztiei eta BGAEen araberrako tratu ezberdinak saihestearren.

Hori dela eta, interpretazio hori egin daiteke eta, ondorioz, Borondatezko Aurreikuspen Sozialeko Erakundeen legearen araudia onartzen duen otsailaren 20ko 87/1984 Dekretuaren 31. artikuluan eskubide ekonomikoak mugitzeko aurreikusitako epe bera aplikatu beharko zaie ordainketa eta erreskateari. Hau da, gehienez bost asteguneko epea aplikatuko zaie, dokumentazio guztia Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundearen aurkezten denetik aurrera zenbatzen hasita. Hala eta guztiz ere, kontingentzia heriotza denean eta onuraduna nor den zehazteko epe luzeagoa eskatzen duten inguruabarrak daudenean, gaia ebatzitakoan hasiko da zenbatzen gehienezko epe hori.

Ebazpen hori emateko eskumena Ekonomia eta Ogasun Sailak du esleituta, honako hauetan ezarritakoaren arabera: Gizarte-Emendiotarako Borondatezko Erakundeei buruzko urriaren 27ko 25/1983 Legea, lege horren araudia onetsi zuen otsailaren 20ko 87/1984 Dekretua eta borondatezko aurreikuspen sozialeko erakundeen jardura jakin batzuk arautzeko den maiatzaren 29ko 92/2007 Dekretua, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura eta zereginak finkatzen dituen urriaren 20ko 568/2009 Dekretuaren bigarren xedapen gehigarriarekin lotuta. Zehatzago esanda, Finantzetako zuzendariak du esleituta eskumen hori, aipatutako 568/2009 Dekretuaren 14. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Arestian adierazitakoa eta aipatutako lege-aginduak eta aplikatu beharreko gainerako arau orokorrak ikusita, honako hau

EBATZI DUT:

Honako argibide hauek helarazi eta jakinaraziko zaizkie Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakunde guztiei (banakako modalitatean edo bazkidedun modalitatean), jakin eta aplika ditzaten:

Lehenengoa: Arestian azaldu den interpretazioaren ondorioz, banakako modalitateko eta bazkidedun modalitateko Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeek kontuan izan beharko dute prestazioak eta erreskateak ordaintzeko gehienezko epea 5 astegunekoa dela, ziurtagiri guztiak erakundearen aurkezten direnetik aurrera zenbatzen hasita. Hala ere, kontingentzia bazkide baten heriotza denean, onuraduna nor den zehaztutakoan hasiko da zenbatzen epe hori.

Bigarrena: Halaber, bazkide arruntak edo onuradunak kobratzen duen egunean eskubide ekonomikoen likidazio-balioa zehazteko data arestian aipatu den bost eguneko epearen barruan egongo da.

Hirugarrena: 2010eko uztailaren 1etik aurrera aplikatuko dira ebazpen honetan aurreikusitako epeak.

Laugarrena: Epe horiek beste modu batean araututa dituzten BGAEen estatutu eta araudiak aldatu eta egokitu egin beharko dira, 2010. urte honetan, ebazpen honetan ezarritako irizpideen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 22a.

Izpta.: Miguel Bengoechea Romero
FINANTZETAKO ZUZENDARIA.